

Javier García Lurueña ordezkatuko du karguan, Sozietateko Administrazio Kontseilua ere utziko baitu

Kutxabanken Banka Pribatua-Finecok Eduardo Ruiz de Gordejuela presidente izendatu du

- **Kutxabanken Xehekako Zuzendari Nagusia da eta 27 urtetik gorako ibilbidea du finantza Taldean**
- **Bezeroen kudeatutako ondareak lehen aldiz 3.600 milioi euroko kopurua gainditu du, iazkoaren aldean %16 hazita**

2020ko abenduaren 13an. Kutxabanken Banka Pribatua-Finecoren Administrazio Kontseiluak Eduardo Ruiz de Gordejuela izendatu du Balioen Sozietateko presidente berria, gaur egun Kutxabanken Kontseilari Delegatua den Javier García Lurueña ordezkatuz, Finecon zuen ardura utzi baitu.

Kutxabanken Banka Pribatua-Finecoren Administrazio Kontseiluak zazpi kide ditu, hiru akziodunen gutxiengoak izendatutakoak, eta beste lau finantza-erakundeak hautatutakoak. Jose Ramon Blazquezek, Bankuaren finantza-zuzendariak hartuko du Javier Garcia Lurueñaren irteerak aske utzi duen aulkia.

Eduardo Ruiz de Gordejuelak euskal finantza Taldean egin du bere ibilbide profesional osoa, eta egun **Kutxabanken Xehekako Negozioko Zuzendari Nagusia** da. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean, eta Unibertsitate berean Ezagutzaren Kudeaketako Masterra. 1992an hasi zen BBK-n lanean, eta Aurrezki Kutxan hainbat ardura izan zituen, Inbertsioen Bankan, Erakundeen Bankan eta marketing edo alor komertzialetan. 2008an Bizkaiko xehekako Zuzendari izendatu zuten, eta Zuzendariorde Nagusi handik urtebetera. 2012an Kutxabank sortu ondoren, Bizkaiko Xehekako Negozioko Zuzendaria eta Xehekako Negozioko Zuzendariorde Nagusia izan da. 2018az geroztik Kutxabanken Xehekako Negozioko Zuzendari Nagusia da, bai eta Bankuaren Zuzendaritza Batzordeko kidea ere, beste hainbat organo erabakitzailetako kide izateaz gain.

2019an, Kutxabanken Banka Pribatua-Finecok **%16ko hazkundera izan du kudeatutako aktiboen bolumenean**, eta lehen aldiz **3.600 milioi euroko** langa gainditzea lortu du kudeatutako ondarean. Bilakaera horretan deigarriak izan dira programatutako kudeaketako produktuen hazkundera, bai eta 'Family Office' alorrak izanikoa ere, ondare handien kudeaketan.

Zorroren batez besteko **errentagarritasuna %8tik gorakoa** izan da, eta beraz 2019 izan da hamarkada osoko urterik onena errentagarritasunari dagokionez, 2013. urtea baino hobea.

2020an Kutxabanken Banka Pribatua-Finecoren jarduerak aurreko urteetako hazkundeak izan dituen oinarri beretsuak izango ditu, hau da, **personalizazioa**, **digitalizazioa**, (ESG) **inbertsio arduratsuak**, erakunde kudeatzaile espezializatuekin lortutako **akordioak**, eta batik bat, **talentua erakartzea**.

Epe ertainean, ondareen kudeaketako industria trinkotzeko prozesuan eragile aktibo kentsolidatzeko egitasmoa du Finecok.